

Euskal AEko esportazioek % 30,8 egin dute gora 2022ko apirilean

2021ean, Aljeriara esportatu zen 66,8 milioi euroko balioan; inportatutakoaren balioa 7,6 milioikoa baino ez zen izan

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.660,7 milioi euro), 2022ko apirilean eta aurreko urteko hil beraren aldean, % 30,8ko igoera nominala izan dute, Eustaten datuen arabera. Bolumen esportatzaile horren ondorioz, aurtengo apirilean serie historikoa izan da, eta aurreko hila ere gainditu da; orduan, 2.619,3 milioi euro izan ziren. Esportazio ez-energetikoen % 29,8 egin zuten gora, eta energetikoen, % 47,6.

Inportazioen kasuan (2.479,9 milioi), % 51,3ko igoera egon da, produktu energetikoen % 148,1eko eta ez-energetikoen % 27,6ko igoeraren ondorioz. Merkataritza-fluxu horretan ere, apirilak serie historikoaren zifrarik altuena izan du, aurreko hilaren aurretik (2.238,3 milioi).

2022ko laugarren hilak merkataritza-saldo positiboa izan du, 181 milioi euro ingurukoa, eta % 107,3ko estaldura-tasa ekarri du.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Apirila 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Apirila			Apirila		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.034.328	2.660.676	30,8	1.639.560	2.479.873	51,3
ENERGIAZKOAK	117.246	173.029	47,6	322.219	799.462	148,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	1.917.083	2.487.647	29,8	1.317.342	1.680.411	27,6
URTEKO METATUA	8.109.625	10.052.025	24,0	6.143.309	8.892.621	44,8
ENERGIAZKOAK	375.649	753.952	100,7	1.134.215	2.232.349	96,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	7.733.976	9.298.073	20,2	5.009.094	6.660.272	33,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	590.204	770.523	30,6	344.032	454.724	32,2
URTEKO METATUA	2.455.075	2.944.989	20,0	1.429.358	1.877.057	31,3
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	834.338	1.000.726	19,9	926.484	1.579.041	70,4
URTEKO METATUA	3.216.845	4.047.992	25,8	3.295.889	5.200.707	57,8
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	609.787	889.428	45,9	369.044	446.109	20,9
URTEKO METATUA	2.437.706	3.059.044	25,5	1.418.063	1.814.857	28,0

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoen hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte, eta igoera-ehunekoen % 19,9koa Bizkaian, % 30,6koa Araban eta % 45,9koa Gipuzkoan. Bizkaiko esportazio ez-energetikoen % 15,7 egin dute gora; Arabakoek, % 30,5, eta Gipuzkoakoek, % 45,6. Esportazio energetikoen, Bizkaiaren kasuan, % 45,8ra iritsi dira.

Araban, esportazioak honako hauetan kontzentratzen dira: “Garraio-materiala” (guztizkoaren % 53,9), % 26,0ko hazkuntzarekin; “Metalak eta haren manufakturak” (urte arteko % 89,5eko igoera); “Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak” (% 7,8), eta “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 6,8). Lau “arantzel-sekzio” horiek hil honetako garrantzitsuenak izan dira.

Gipuzkoan, gora egin dute “Garraio-materialaren” salmentek (% 49,4), bai eta “Metal eta haien manufakturenek” (% 69,4) eta “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoek” (% 32,1) ere.

Bizkaiaren kasuan, esportazio-igoera izan da “Metalak eta haien manufakturak” (% 21,1), “Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak” (% 12,3) eta, batik bat, “Produktu mineral eta energetikoak” (% 42,2) ataletan; “Garraio-materiala” atalean, berriz, % 8,9ko atzerakada izan da.

2022ko apirilean, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Italia) eratu dute Euskal AERen bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 51 hartzen dute (1.357,1 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 63,8 dagokio.

Frantziara eginiko esportazio kopurua % 29,6 hazi da, Alemaniara eginikoa % 20,1, Erresuma Batuarara eginikoa % 34,6, Estatu Batuetara eginikoa % 64,2 eta Italiakoa % 56,8; era berean, Belgikara (% 13,9) eta Portugalera (% 47,4) eginikoak ere areagotu dira. Hil honetan, Txinari eginiko salmentak % 30,7 areagotu dira, eta Mexikori eginikoak, % 64,8, baita Norvegiari eta Brasili eginikoak ere (% 136,3 eta % 48,1, hurrenez hurren). Errusiari eginikoak % 45,3 jaitsi dira.

EB27tik etorri dira gure inportazioen % 40,8. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Belgika nagusitzen da (% 62,8ko hazkuntza), bai eta Frantzia (% 30,0), Alemania (% 24,8) eta Italia (% 23,6) ere. Erresuma Batukoek % 24,5 egin dute atzera, eta Irlandakoek, % 20,3. Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten dugu areagotu direla, era berean, honako herrialde hauetan jatorria duten inportazioek, besteak beste: Txina (% 50,5), Brasil (% 189,3 eta 173 milioi), Mexiko (% 201,6 eta 98 milioi), Estatu Batuak (% 796,7 eta 244 milioi), Egipto (% 1.601,2 eta 84 milioi), Norvegia (% 2.358,3 eta 46 milioi) eta Nigeria (% 18.287,0 eta 100 milioi). Errusiaren kasuan, % 69,5eko atzerapena egon da; 2021eko apirilean, 94,8 milioi izan ziren eta, 2022ko hil berean, 28,9 milioi. Azken herrialde horietako inportazioak funtsean energetikoak izan dira, Txinatik eta Errusiatik datozenak izan ezik; Errusiatik, hil honetan, ez dugu horrelako produkturik inportatu ia (59.000 euro).

2022ko apirilean merkaturatutako produktuak

Xehetasunak ikusteko, 2022ko apirilean ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 40,9 kontzentratu zutela; baterako balioa 1.1085 milioi eurokoa izan zen.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.034.328	2.660.676	100,0	30,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	183.500	196.623	7,4	7,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	130.882	178.408	6,7	36,3
Petrolioaren olio finduak	102.077	162.112	6,1	58,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobila	116.881	149.542	5,6	27,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	84.306	99.255	3,7	17,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	42.186	81.507	3,1	93,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	58.208	2,2	-
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	18.232	57.554	2,2	215,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	23.409	51.438	1,9	119,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	53.027	50.395	1,9	-5,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	28.511	44.576	1,7	56,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	27.672	41.718	1,6	50,8
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	22.849	36.001	1,4	57,6
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	20.038	29.223	1,1	45,8
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.688	28.556	1,1	45,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	20.806	28.207	1,1	35,6
Landu gabeko aluminioa	27.230	27.003	1,0	-0,8
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-eto, burdinako edo altzairuko antzeko	12.330	24.523	0,9	98,9
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	16.398	24.077	0,9	46,8
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak...	18.182	22.333	0,8	22,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	19.934	21.538	0,8	8,0
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabekoa, bobina edo orritan	14.027	20.712	0,8	47,7
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko barrak, forjatuak, okertuak edo ebakidura zirkular edo angeluzuzenekoak	6.638	19.864	0,7	199,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukierekin	4.492	19.816	0,7	341,1
Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, tailatzeko, biribilatzeko, kurbatzeko, tolesteko, zuzentzeko edo lauteko makinak eta prentsak	4.191	19.025	0,7	354,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Nabarmentzekoak dira honako hauen igoerak: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 58,85 eta 60 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino); “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” (% 36,3 eta 178 milioi esportatu); “*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak*” (% 119,7 eta 51 milioi). Halaber, gora egin dute “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilek*” (% 93,2 eta 81,5 milioi), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilenek*” (% 27,9 eta 149,5 milioi), “*Kautxuzko pneumatiko berriek*” (% 17,7 eta 99 milioi) eta “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoek*” (% 7,2 eta 197 milioi esportatu); hala ere, atzera egin dute “*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteek*” esportazioek (–% 66,3). Apirilean, era berean, azpimarratzekoa da “*Igogailu, eskailera mekaniko, garraiagailuen...*” esportazio-igoera nabarmena (57,6 milioi).

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, pisu espezifiko gehienekoak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” (guztizkoaren % 25,8), % 187,6ko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 417 milioi gehiago, 639,2 milioiko guztizko erosketetan, honela banatuta: 168,9 milioi Libiarenak, 101,6 Brasilarenak, 99,3 Nigeriarenak, 92,4 Mexikorenak, 69,6 Egiptorenak, 65,2 Estatu Batuenak eta 42,1 Norvegiarenak. Joera positibo hori arantzel-partida nagusi gehienek izan dute, eta haien artean nabarmentzen da “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” partidaren hazkuntza (% 1.230,3 eta 140,2 milioi inportatu), ia guztia “gas naturala”, hil honetan Estatu Batuetakoa (140,1 milioi). Era berean, honako hauen igoera ere nabarmentzen da: “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu plano ijeztuak, txapatuak edo estaliak, > 599 mm*” (% 107,1 eta 38,9 milioi), “*Metagailu elektrikoak eta horien zatiak*” (% 294,2 eta 24 milioi) eta “*Garia*” (21,9 milioi), Alemaniatik (19,2 milioi), Errusiatik (2,5 milioi) eta Luxenburgotik (0,2 milioi) inportatuak.

ARABA. Esportazioak 2022ko apirilean

Araban, esportazioek % 30,6ko igoera izan dute, bertako 10 partida nagusiek (kopuru osoaren % 70,6) hazkuntza-tasa positiboak izan dituztelako. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira: “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 310,0 eta 42,9 milioi esportatu) eta, ondoren, “Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...” (% 273,2) eta “Tapoi, tapa eta bestelako osagarriak metal arruntezko ontzientzat” (% 124,9).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	590.204	770.523	100,0	30,6
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	178.925	194.534	25,2	8,7
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	116.724	149.485	19,4	28,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	17.245	53.683	7,0	211,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	10.454	42.856	5,6	310,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	31.702	34.040	4,4	7,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	11.777	19.630	2,5	66,7
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	7.961	17.905	2,3	124,9
Ardoa, mahats freskoarena	14.648	15.682	2,0	7,1
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	0	10.180	1,3	-
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	5.775	8.266	1,1	43,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko apirilean

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 19,9 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik (kopuru osoaren % 45,4), hazkuntza-tasa handiena “Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin” partidak izan du (% 341,1 egin du gora eta 15,3 milioi gehiago izan ditu aurreko urtean baino); ondoren, “Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak, forjatuak, tortsionatuak edo sekzio zirkularrekoak edo laukizuzenekoak” (% 235,2) eta “Petrolioaren olio finduak” (% 57,2 eta 159,3 milioi esportatu).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	834.338	1.000.726	100,0	19,9
Petrolioaren olio finduak	101.378	159.318	15,9	57,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	52.264	64.632	6,5	23,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	54.935	64.541	6,4	17,5
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	21.634	33.379	3,3	54,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.390	33.108	3,3	47,9
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.864	23.382	2,3	23,9
Landu gabeko aluminioa	24.283	20.995	2,1	-13,5
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	4.492	19.816	2,0	341,1
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	11.288	18.218	1,8	61,4
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko barrak, forjatuak, okertuak edo ebakidura zirkular edo angeluzuzenekoak	5.200	17.431	1,7	235,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko apirilean

Gipuzkoako esportazioek % 45,9 egin dute gora, eta joera positibo nabarmena dute, aurreko urteko hil berarekin eta gainerako lurraldeekin alderatuta. Esaterako: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako” partidatik 58 milioi euroko balioan esportatu da eta 2021eko apirilean partida horren esportaziorik ez zen egon; “Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, tailatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko, zuzentzeko edo lauteko makina-erremintak eta prentsak” % 346,7 hazi dira eta “Materiala erauziz metala zulatzeko, eskariatzeko, fresatzeko edo hariztatzeko makinak, tornuak izan ezik” % 189,4 hazi dira, eta “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilek” % 97,0 eta 78,5 milioi esportatu. Partida horietatik, batek ere ez du urte arteko tasa negatiborik izan.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Apirila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	609.787	889.428	100,0	45,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	39.847	78.509	8,8	97,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	58.702	60.184	6,8	2,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueterako	0	58.208	6,5	-
Igogailuak, eskallera mekanikoak, garraigailuak...	14.550	47.326	5,3	225,3
Txorrotetarako artikulua, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.667	35.934	4,0	10,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	16.035	25.206	2,8	57,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	19.135	19.987	2,2	4,5
Forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, tailatzeko, biribilkatzeko, kurbatzeko, tolesteko, zuzentzeko edo lauteko makinak eta prentsak	3.906	17.447	2,0	346,7
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.431	16.560	1,9	14,8
Materiala abiaraztean metala zulatzeko, eskariatzeko, fresatzeko edo hariztatzeko makinak, tornuak izan ezik	5.605	16.222	1,8	189,4

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2022KO METATUA (URTARRILA-APIRILA): kanpoko saldoak 1.159,4 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 113,0koa da

2022ko lehen lau hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 24,0ko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 1.159 milioi euro gehiago. Aldi horretan zenbateko esportatzailea 10.052 milioikoa da, eta kopuru horri Bizkaiak egiten dio ekarpenik handiena, 4.048 milioikoa (guztizkoaren % 40,3), gero Arabak (2.945 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (3.059 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute, 831,1 milioi gehiago 2021ean baino, eta % 25,8ko hazkuntza erlatiboa. Araban, igoera % 20,0koa da (489,9 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 25,5ekoa (621,3 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai “Produktu energetikoenek” (378,3 milioi gehiago), bai “Produktu ez-energetikoenek” (1.564,1 milioi gehiago 2021eko hil bereko metatua baino).


Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 41,5 kontzentratzen dute, 4.153,7 milioiko zenbatekoarekin. Haietako batek baino ez du egin pixka bat atzera, 2021eko aldi beraren aldean: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partidak; % 9,0 behera egin badu ere, jarraitzen du Euskal AEn esportazio-bolumen handiena duen partida izaten. Gehien hazi diren produktuen artean honako hauek nabarmentzen dira: “Petrolioaren olio finduak” (% 114,3 eta 371

milioi euro gehiago 2021ean baino, eta ehuneko hori murriztu egiten da % 28,5era, euroak kontuan hartu beharrean esportatutako tonak kontuan hartzen badira). Zerrendako gainerako produktuetan, aurrerapenak % 10,5 (54,5 milioi euro gehiago) eta % 98,8 bitartekoak dira (98 milioi euro gehiago), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” eta “Hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzkoak” partidetakoak, hurrenez hurren. Honako igoera hauek ere badira kontuan hartzekoak: “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”, “Txapak eta zerrendak, aluminiozkoak, 0,2 mm-tik gorako lodiera dutenak” eta “Automobilentzako zati eta osagarriak”, % 57,6ko, % 56,1eko eta % 28,3ko aldakuntza positiboak izan baitituzte, hurrenez hurren. Aipatu behar dugu “Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak” partidak izan duen igoera handia; rankingeko hamahirugarren postua betetzen du, eta % 105,5ekoa da (61,9 milioi euro gehiago).

Gure esportazioen helmuga-herrialdeen sailkapenean, aztertutako aldian, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, guztizkoaren % 16,1ekin. Frantziaren ondoren, Alemania (% 15,8), Estatu Batuak (% 6,4), Erresuma Batua (% 6,1) eta Italia (% 6) daude, eta, hala, bost herrialdeek esportazioen % 50,3 hartzen dute.

Euskal AErako **inportazioen** metatua, aintzat hartutako aldian, 8.892,6 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 2.749 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 44,8ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (5.200,7 milioi balioa duten inportazioak ditu) % 57,8ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 1.904,8 milioi gehiago. Araban ere inportazioek aurrera egin dute, % 31,3 termino erlatiboetan, 447,7 milioi euro gehiago salduta, eta, Gipuzkoan, % 28,0ko igoera izan dute eta 396,8 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 1.877,1 eta 1.814,9 milioi euro izanda, hurrenez hurren, bi lurralde horietan. “Produktu energetikoen” inportazioak % 96,8 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 33,0.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen lau hiletan, 1.159,4 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 113,0koa.



KANPO-MERKATARITZA ALJERIAREKIN

2021ean, Aljeriara esportatu zen 66,8 milioi euroko balioan; inportatutakoaren balioa 7,6 milioikoa baino ez zen izan

Aljeriara bideratutako Euskal AEko esportazioak 66,8 milioi eurokoak izan ziren 2021ean, eta bilakaera horrek, eskuragarri dagoen seriean izandako gorabeherak kontuan hartuta, gure erkidegoak herrialde horretara egiten duen esportazioaren maximoa 2014an markatu zuen, 403,4 milioi eurokoa.

Hain zuzen ere, joan den hamarkadaren erdialdean izan zuen Aljeriarekiko kanpo-merkataritzak aldirik biziena, 2015ean 301,1 milioi eurokoa edo 2013an 244,7koa. Esportazio-jarduera handiko beste aldi bat 2008 eta 2010 artean gertatu zen, guztira 962 milioi esportatzera iritsi ziren hirurtekoan.

COVID-19aren pandemiaren aurreko urteetan, aldiz, esportazio-tartea 200 milioira iristen zen. Bestalde, aurtan, urtariletik apirilera, 29,9 milioi euroko esportazioak egin dira Aljeriara.

2021ean, Aljeriara egindako esportazioak gure erkidegoko enpresek esportatutako guztizkoaren % 0,26 izan ziren. 2015era jo behar da % 1etik gorako balioak aurkitzeko, zehazki % 1,4koak. Herrialde horretara eginiko esportazio-pisurik handiena 2009an lortu zen, esportatutako 314,7 milioiak globalaren % 2,1 izan baitziren.

Esportazio eta inportazio guztien eta helmuga/jatorria Aljeria dutenen bilakaera Euskal AEn (mila eurotan). 2000-2022

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	GUZTIRA	Aljeria	GUZTIRA	Aljeria
2022 (p)	10.019.621	29.898	8.881.824	4.817
2021	25.665.434	66.772	21.059.909	7.622
2020	21.124.228	64.633	15.868.399	7.551
2019	25.485.814	175.549	20.158.663	21.000
2018	25.788.256	169.612	20.485.134	59.609
2017	24.109.924	162.692	18.707.860	30.635
2016	21.615.926	215.028	15.604.110	5.206
2015	21.867.751	301.105	16.835.621	37.378
2014	22.512.626	403.439	17.135.565	84.072
2013	20.631.891	244.718	15.961.604	247.407
2012	20.971.197	196.106	15.824.618	48.345
2011	20.488.215	188.073	17.309.724	67.144
2010	17.875.509	305.373	15.430.506	34.902
2009	14.945.392	314.689	12.294.455	50.875
2008	20.279.427	341.975	20.118.006	62.280
2007	19.072.733	118.089	18.902.660	33.029
2006	16.647.384	136.311	17.478.105	152.858
2005	14.296.683	117.682	14.536.671	56.414
2004	13.508.823	82.288	12.573.203	71.838
2003	11.786.773	65.271	10.494.702	8.679
2002	11.637.496	72.385	10.171.079	2.840
2001	11.603.061	46.535	10.017.209	3.417
2000	11.870.926	43.958	10.323.975	4.243

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Beste ezaugarri honek ere definitzen du Aljeriarekiko merkataritza: Euskal AEko esportazio-jarduera produktu kopuru txiki batean zentratzen da (arantzel-partidak). Mediterraneoko arroko herrialde horretara esportatutako kopuru osoaren % 60 hamar produktuk baino ez dute kontzentratzen. Nabarmenezkoa da duen bolumenagatik *Kraft papera eta kartoia, iztukatu eta estali gabea, bobina edo orritan*; salgaia bidali zuen 20,6 milioi euroko balioan eta, beraz, partida horrekin soilik esportazioen % 30,8ra iristen da.

Lehenengoarekin lotutako beste partida batzuk, zenbateko txikiagokoak, honako hauek dira: *Prentsa papera bobina (biribilkiak) edo orritan*, 3,5 milioi euro, eta *Papera eta kartoia iztukatu eta estali gabea, helburu grafikoekin, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan*, 1,6 milioi.

Esportatutako gainerako lehenengo hamar produktuetatik, 2021ean bi milioi euro baino gehiago izan dira: *Zentrifugagailuak eta likidoak edo gasak iragazteko aparatuak eta horien zatiak, Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak eta Ore zelulosikoa, papera, kartoia eta horien akabera fabrikatzeko makinak*, lehenengoak 3 milioi euroekin eta beste biak 2,1 milioi euroekin.

Inportazioei dagokienez, azpimarratzekoa da herrialde horrek gure nazioarteko merkataritzan duen presentzia urria. Azken urte osoak, 2021 eta 2020, ez ziren 8 milioi eurora ere iritsi, 7,6 milioi urtero, zehatzago esateko, gure inportazioen % 0,04 baino ez.

Pandemia aurreko urteak indartsuagoak izan ziren, bereziki 2018an, inportatutako 59,6 milioi euroekin, edo urte batzuk aurretik oraindik, 2013an, 247,4 milioirekin, ezagutzen den seriearen inportazio-bolumen handieneko urtea izan baitzen. Urte horretatik aurrera, gutxi izan dira 50 milioitik gorako aldiak.

Helmuga/jatorria Aljeria Euskal AEn duten hileko esportazio eta inportazioen rankinga (p). 2021

	Mila euro
Muga-zergen partidak	
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	66.772
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabea, bobina edo orritan	20.578
Prentsa-papera bobinetan (biribilkiak) edo orrietan	3.526
Zentrifugagailuak eta likidoak edo gasak iragazteko aparatuak eta horien zatiak	2.981
Automobilentzako zati eta osagarriak	2.141
Ore zelulosikoa, papera, kartoia eta horien akabera fabrikatzeko makinak	2.117
Beroan ijaztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabaleraok	1.864
Arrain fresko edo hoztua	1.848
Paper orea, papera edo kartoia lantzeko gainerako makinak, ebakigailuak barne	1.811
Iztukatu eta estali gabeko papera eta kartoia, helburu grafikoekin, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan	1.610
1000 v-tik gorako tentsioetarako zirkuitu elektrikoak babesteko, bideratzeko, lotzeko, mugatzeko, ebakitzeko eta deribatzen diren aparatuak	1.560
INPORTAZIOAK GUZTIRA	7.621,6
Beira flotatua eta alde batetik edo bietatik arbastutako edo leundutako beira, plakatan edo orritan, baina bestela landu gabe	7.417,5
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	116,0
Ongarri mineral edo kimiko nitrogenatuak	75,2
Gailu erdieroale fotosentikorrek edo ez-fotosentikorrek eta kristal piezoelektriko muntatuak eta horien zatiak	5,8
Datilak, pikuak, pinaburuak, ahuakateak, guaiabak eta kirtanak, freskoak edo lehorrak	2,0
Telefonoak eta ahotsa, irudia edo beste datu batzuk transmititzeko edo jasotzeko gainerako aparatuak	1,3
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	1,1
Ohiko bizilekua aldatzen duten pertsona fisikoaren ondasun pertsonalak	0,8
Hainbat materialen eta horien zatien propietate mekanikoak probatzeko makinak eta aparatuak	0,3
Gainerako jantziak, puntuzkoak	0,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Esportazio-jarduera barietatean mugatua zen, eta inportatzailea monokromatikoa dela esan daiteke. Hala, Afrikako iparraldetik inportatutako 7,6 milioietatik 7,4 milioi partida bakarrari dagozkio, " *Beira flotatua eta arbastatutako edo leundutako beira*"ri, Aljeriatik inportatutako zenbatekoaren % 97,3 xurgatzen baitu.

Duela gutxi, *Petrolioaren edo mineral bituminosen olio gordinak* partidaren inportazio esanguratsuak egin dira; 2013an 220,6 milioi eurokoak izan ziren –inportatutako kopuru osoaren % 89,1–, 43,2 milioikoak 2018an –guztizkoaren % 72,5 – 7,6 milioikoak 2017an –% 24,9– edo 37,3 milioikoak 2015ean –% 99,7–.

Petrolio-gasaren eta gainerako hidrokarburo gaseosen partidarenak esanguratsuak izan dira. 2020an eta 2021ean izan ez badira ere, hurrenkera kronologikoari jarraikiz, 15,2 milioikoak izan dira 2019an, 12,6 milioikoak 2017an, 82,1 milioikoak 2014an, 25,0 milioikoak 2013an, 2,1 milioikoak 2012an, 58,7 milioikoak 2011n eta 31,8 milioikoak 2010ean.

Kasurik onenean, 2013an, *Petrolioaren olio gordinak edo mineral bituminosoak* eta *Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak* partidetan, Aljeriatik etorritako inportazioak herrialde guztietatik kontzeptu horiengatik inportatutako kopuru osoaren % 7 izan ziren. 2019an, balioa izan duen urterik hurbilenean, bi partidetan inportatutako kopuru osoaren % 0,3 izan zen.

Erraz ondorioztatzen denez, Aljeriarekiko merkataritza-saldoa positiboa izan da beti, 2013an izan ezik, –2,7 milioikoa izan baitzen. 2021ean, saldoa 59,2 milioikoa zen eta 57,1ekoa 2020an. Aurten, lau hilabete hauetan, 25,1 milioiko zifra lortu da. Saldo historiko handiena 2014an erregistratu zen, 319,4 milioikoa, eta nabarmen gainditu ziren 200 milioi 2015ean eta 2016an. Oraintsuago, 2019an, 154,5 milioikoa izan zen.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62